



D2. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrienei dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen moduak eta tresnak erabilia.

Osagaiak

Honako osagai hauek ditu matematikarako konpetentziak:

- a) Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebaztea eduki matematikoa duten zenbait egoera problematiko, eta, horrela jokatuta, ingurunea hobeto ulertzeko urratsak ematea.
- b) Jakintza matematikoa erabiltzea eguneroko edota zientziaren esparruko egoerei aurre egiteko, egoera horiek "modelizatuta"; hau da, egoerak termino matematikoetan adieraztea, modelo edo ereduari jarraitzea eta emaitzak testuinguruaren barruan interpretatzea.
- c) Bizitzaren hainbat esparrutako informazioak, argudioak eta emaitzak interpretatzea eta adieraztea, hizkuntza matematiko egokia erabilia.
- d) Jakintza matematikoa ezagutzea, erlazionatzea, integratzea eta balioestea, egoera bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta.
- e) Arrazoitze modu askotarikoak erabiltzea nor bere ondorioak eta horietara iristeko prozesua justifikatzeko, bai eta gainerako pertsonen aurkeztutako emaitzak modu kritikoan aztertze ere.
- f) Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatea kalkulatzeko, irudikatze eta interpretatzeko, eta, horren harian, eraginkortasunaren mesedetan erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.